

KOSTU EGITURAK

Gure zaborrontzi adimenduak produzitzeko, kostuak aztertuko ditugu lehenik.

Alde batetik, kostu finkoei (beti izango ditugun kostuak) dagokionez honako hauek izango dira: gure langileen soldata eta produzituko ditugun lekuko alokairua. Gure produktua merkeagoa izan dadin, fabrika bat alokatuko dugu donostia inguruan. Fabrika 4000 euroko kostu finkoa izango da. Gainera, gure produktuak diseinatu eta aztertzeko bulego batzuk alokatuko ditugu fabrikaren gertu, edozer arazo balego gerto egon daitezen. Bulego honek 2500 euroko kostua izango du.

Beste aldetik, produzitzeko prozesuan hainbat aditu beharko ditugu lanean (ingenieroak, diseinatzaileak,...). 30 pertsona inguru kalkulatzeko ditugu lanean arituko direla gure enpresan, zaborrontzi adimenduen produkzioa azkartzerakoan soldata igotzen jungo da, urtean ehuneko 3a inguru. Langile guztiek soldata berdina izango dute eta ordutegi berdina izango dute. Langile bakoitzak 2000 euroko soldata izango du makina bakoitzeko, hau da, hilabetean makina oso bat produzitzen badute 2000 euroko soldata izango dute, 3 makina produzitzea lortzen badute 6000 euroko soldata izango dute, %3 aren igoera progresiboa kontuan hartu gabe. Guztira langileen soldata gutxienez 60.000 euro hilabetean kostatuko zaigu. Soldata igoera hauekin gure langileen produktibitatea eta motibazioa sustatuko dugu, gure lehen helburua gure langileak pozik egotea da eta era berean, aldaketa klimatikoa ahultzea da.

Beste kostu batzuei dagokionez, energia funtsezko baliabidea izango da gure produktua sortzeko eta horregatik energia-kostuak ondo kalkulatu behar ditugu. Fabrika eta bulegoen energia konsumo handia izango dute, bereziki fabriketan energia asko konsumituko duten makinak izango ditugu. Aldaketa klimatikoa ahultzeko asmoarekin gure produkzio osoa ahalik eta eraginkorrena izaten saiatzen ari gara. Horretarako gure energia gehiena eguzki-panelen bidez lortuko dugu, horrela produkzio merkeagoa izango da eta horren ondorioz produktu merkeagoa eta era berean ignurumena zainduko dugu. Gure enpresak ez du energian dirua inbertitu beharko jada fabrika eguzki-panelak daudelako.

Gure produktua produzitzeko materialak: material plastikoak eta metalikoak, sentsoak, komunikazio-sistemak, energia-sistemak, automatizazioa, softwarea eta erabiltzaile-interfazeak. Guztira 30.000 euroko kostu aldakorra izango dela kalkulatu dugu.

Azkenik, gure kostu finkoak: fabrika eta bulegoaren alokairua guztira 6500 eurokoa da. Kostu aldakorrak berriz: soldata eta materialak. Guztira 90.000 euro inguruko kostu aldakorra izango dira. Hau dena kontuan izanik gure zaborrontzi adimendu bat produzitzea 96.500 euroko kostua izango du.